

*Arizmendiarietaren pentsamenduen bidaltzearen kanpainarekin jarraituz, PERTSONA kontzeptu eta balioari buruz idatzitakoak jasotzen joatea da gure asmoa.*

*Alderdi ugari eta ezberdinetatik begiratuta aztertu zuen pertsona kontzeptua on Jose Mariak: bere izate eta garrantzia, pertsonaren errespetu eta duintasuna, bere funtzioa eta erantzukizuna gizartean eta enpresa munduan... Gogorazten zizkigun, baita ere, koherentziaz eta arimaz jokatzeko beharra, eguneroko jokabidean azaltzen zaizkigun bertuteak eta akatsak, pertsona guztion askatasunerako eskubidea... Pentsamendu asko eta ezberdinak sakondu zituenak eta denok zatika jasoko ditugunak jorratutako gaien arabera.*

*Gaur pertsona kontzeptuaren izatea eta bere duintasunari buruz jasotako batzuk bakarrik bidaltzen dizkizuegu.*

***Enpresa lehenengo zelula ekonomiko soziala da, eta zelula horretan ezarri dugu lanaren eta kapitalaren arteko funtsezko erlazioa, halako moldez non pertsona, hau da, giza kapitala, ekonomiaren motorrik inportanteena ez ezik ekonomiaren helburua ere izango den. (p446)***

*PERTSONAri buruz beste pentsamendu batzuk:*

*Kooperatibak ahalik eta arreta handiena jarri behar du gizakiarengan, baina idealizatu barik, baizik eta den bezala hartuta, bere akats eta bertuteekin; eta kooperatibismoa egitean kontuan izan behar da gizakia, ahal dela, eta norberaren jarreraren bitartez, akatsak arinduz eta bertuteak sustatuz. (p371)*

*Ezinbestekoak dira erreforma asko eta, are ezinbestekoagoa, pentsaeren aldaketa bat jarduera ekonomikoa bere giza helburura iristea nahi badugu. Gizakia da, hitz batean, jarduera ekonomiko eta sozial guztien egilea, muina eta helburua. (p007)*

*Lehenengo gizakiak eta, ondoren, kooperatibak. (p023)*

*Ez dezagun ahantzi gizakia, ez iraultzarako ez iraultzan ez eraikuntzan. (p374)*

*Lankidetzeta bateraezina da edozelako giza morrontzarekin. Gizakiak, gizaki diren aldetik, ezin dira beren giza balioak arriskuan jartzen dituzten mendekotasunen pean jarri. (p478)*

*Arriskutsua da gizakia beste gizaki baten idulki gisa jartzen duen teoria. Gure ustean, faltsua. (p372)*

*Gizakia guztiaren oinarria da; gizakia nolakoa gizartea halakoa. Gizakia edo gizakiak zuzen, zintzo, eskuzabal, prestu, ondraduak badira, gizartea ere zuzen, zintzo, eskuzabal, prestu, ondradua izango da. Esango nuke, halaber, gizartea edo alderdi soziala dela gizakiek benetako bertuteak dituztela erakusten duen termometrorik hoberena. (p022)*

*Zintzotasuna instituzionalizatzea da helburua. Are gehiago: helburua da gizakien handitasuna instituzionalizatzea. (p010)*

*Egia esanda, gizona errukarria da, batez ere gizaki modernoa, zeinak ia ez daukan ez bizitza pertsonalik ez bizitza kontzienterik. (p156)*

*Lankidetzak obra kolektibo batera deitzen ditu gizakiak, baina bakoitzak bere erantzukizuna dauka. Norbanakoaren garapena da, ez besteen kontra, besteekin baizik. Helburua pertsona da, ez gainerakoak zapaltzera daraman asmo sendoko edo arriskuz beteriko munstrokeriaren garapena, baizik eta norbanakoaren garapena, onetik eta sakratutik duen horretan. Gizakiaren hurbileko zerbait da. Filosofia kooperatibistak uko egiten die bai giza izaeraren ikusmolde kolektibistari bai liberalari. Norbanakoaren balioa aitortzen du, eta norbanakoa berezi eta bakartzat hartzen, baina azpimarratzen du norbanakoa ezin dela erabat bera izan berak osatzen duen munduarekin sorkuntzazko, espirituzko eta material produkzioko harremanetan sartu ezean. (p453)*